

# LURRALDE MIRESGARRIAN, GU

Abentura-istorioa da hau. Ez zen urrutiko lurretan gertatu; protagonistak ez ziren exotikoak; eta altxor mirestua edonon dugun mendia bera zen; hala eta guztiz ere, bilaketa, ikasketa eta erronka dira gure istorioaren oinarria, edozein abenturaren oinarria.

Duela bi udara gertatu zen. Valle de los Sarríos, Lizara, Oza... Pirinioetan pibka bat ibili denarentzat inguru arruntak, baina asfaltora ohituta dagoenarentzat Planetaren ezkutuko alde bat ikustea izan zen. Harridura, gozamena eta edertasuna islatzen zuten haien begi marroiek. Bi eguneko travesia labur hura bidaiari luzeago baten hasiera izan zen.

Birjinia, Ainhoa eta Lierni dute izena. Begi marroiek dituzte hirurek, baina bada batzen dituen beste ezauzgarri bat: amak dira. Haurren parkean ezagutu genuen elkar, herriko plazan. Hainbat urtez egunerokoa izaten da parkera hurbiltzea eta horrek, halaberrez, lagun berriak sortarazten dizkio, prest dagoenari.

Ni Txintxu naiz, 47 urteko... ama. 1991an Pirinioak zapaldu nituen lehen aldian zera pentsatu nuen: herrialde garatu eta *Homo sapiens* guztiok ezagutu behariko genuke tokitasun hau. Tokitasuna eta Pirinioak esaldi berean, kontraesana, badakit. Hori baita mendikatearen handitasunak sentiarazten didana, tokitasuna. Eta gustatzen zait, asko gustatzen zait *Homo sapiens* txiki izatearen sentsazio hori, mundua bere tokian jartzeko delat inuitzen zaidalako. Horregatik uste dut gizaki orok bizitzan behin bada ere, sentitu behariko lukeela sentipen hori, gizakia, definizioz, handiki ote den susmoa dudalako.

Haurren parkean, bada, gizaki-lagin txiki bat aurkitu nuen. Amak ziren, haurren zaintzara emanak. Ez zituzten Pirinioak ezagutzen! Are gehiago, ez zuten mendia ezagutzen! "Agurtu mendian aurkitzen duzun laguna"; "goraka datorrenari pasatzen utzi"; "ez utzi inoiz inor bakarrik"; "tal-



## TESTU ETA ARGAZKIAK



Aranza Txintxu eta Agnès "Txintxu" Dorostu, 2019

1991an Escuaín-en bizilagandegi batzuetan egon ondoren, inguruko mendaketatik ziren Pirinio gehiago, Alpeak eta Himalaia printza bat. Ezinbestean, biologia ikasi zuen. Eskolan eta eskoladan ibilia, baina dinor biltzea maite du.

dea taldekidetik ahulena bezain indartsua da, edo pixka bat gehiago"; "elkarlagundu"; "utzi mendia aurkitu duzun bezain garbi, edo garbiago"; "ez dadila nabaritu non ibili zaren"; "bamarra, beti motxilan, baita eguzki betea dagoenean ere"; "norbaiti esan nora zoazen"; "lainoari errespetu handia"; "indarrak neurtu; gailurra, ibilbideaz gozatzea da". Mendi-elkarteek edo gure zaharrek gurekin egin zuten lehenago, baina inorik ez zien hauei halakorik erakutsi, zapaldu gabeko elurra ziren, ama birjinak!

## ERRONKA

Plana zera izango zen: ostiral arratsaldean bidaiatu eta gaua Selva de Oza; larunbatean, Oza-Lizara eta gaua Lizaran; igandean, Lizara-Oza eta bidaiatu etxera. Lotarako, noski, oheak erabiliko genituen, hau da, aterpetxeak. Bibak egiteak oraindik ez du arrakastarik izan, taldean. Excel batean zer eraman eta zer ez eraman zementatu nien; zer eraman jakitea ongi dago, baina zer ez eraman ere zehaztea komeni dela ikasi dut. Nire kontu botikina, ibilbidearen tracka, mapa

eta iparrorratza. Nostalgikoa naiz, badakit; nik buru gogor jarraitzen dut mapa, iparrorratza eta botak eramanaz. Baina bazen plana bera baino erronka handiagoa...

Nola egin Pirinioetarako bidea? Motivazioa bazuten, beraz, entrenatzea falta zen. Izan ere, herrian ibiltzea eta mendian ibiltzea oso desberdina da. Zapaltzeko modua irregularra da mendian; orkatiliek eta hortik gorako tendoi eta muskuluek desberdin egiten dute lan; maldak handiagoak daude mendian; halaber, bideak norberak egin

Arrokak, larreak, pinudiak eta hosto zabalak oboak; bagazak bahera, guztiak zeharkatuta





Glaziarren gainean, kareharririkoeia granitozko hornatzarretatik ezkerera, Petit Vignemale, gure mendia. Nor ez da txiki sentitzen halako handitasunari!

behar ditu maiz; lur-mota beretsua zapalduko duzu herrian, mendian ez bezala. Alegia, ibilkera oso desberdina behar dela mendian eta herrian, eta hori ikusaraztea kosta egin zitzaidan. Mendian ibiltzen ikasteko, mendia behar genuen.

Mendien zerrenda bat osatu genuen, hortaz (beste *excel* bat). Pirinioetara joan baino lehen, inguruko mendietan ibiliko ginen, mendia ezagutzeko. Agina, Mendizorrotz, Adarra. Guatxap-taldea osatu genuen, nola ez. Eta datak zehazten joan ginen. Guztiok ministro-agendak ditugunez, egun berean elkartzea ezinezkoa izaten zen, baina norberak ahal gisan, fisikoki indartsu jarri ginen eta teknikoki prest. Ganbo, Orhi, Anboto, Alluitz.

Gainditu genituen beldurrak... edo ez, baina bildu genuen beharrezkoa zen au-

sardia eta 2020ko ekainaren 30ean Ozarantz joan ginen, gure izuen gainetik salto eginez (noiz kiroltik egin gabe eta, *gai izango al naiz? Asfaltorik ez eta, segurua da? Haurrik gabe asteburu bat pasatzeko gai ote naiz?*).

## PIRIAK ETA ERRONKA BERRIAK

Eta abenturazko istorioa izan beharrean, kontakizun hau pelikula erromantikoa balitz, une honetan hitz egin beharko nuke, azkenean maialeskak elkartu zireneko unez iraragarri horretaz, filmaren punturik beroenaz. Baina ez dut inteenan bizitakoa deskribatuko, ez baitut ongi egingo; nire hitzek ez dutenahikoa indar izango. Begi marr diak berde eta urdin bilakatu zirela esango dut soilik, eta horren lekuko izatea pozez betetzen nauela.

Mendiari lotuta eta ama-taldea batuta, lehena azkena ez izatea erabaki genuen. Azken batean, gure haurrek bizirik jarraitzen zuten, etxea zutik, belar-usainari gustua hara genion eta sentitzen ginen piboa bat ahaldunduago (*kontro, gai izan gara!*). Eta 2021eko abuztuaren 28an beste ibilbide bat egingo genuela erabaki genuen.

Abentura berrian, gainera, lagun berriak izango genituen, herriko plazan dagoen haur parke oparo horretako amak. Marijo (2020koan, bigarren eguna gurekin osatu zuen). Amaia, Olatz eta Intza. Azken horrek eskarmentu handia zuen mendian eta gaztetasuna ere bai, hiru seme-alaben ama izanagatik. Zortzikote sendoa osatu genuen, beraz. Eta guatxap-taldea handitu (zerrenda luzatu), entrenatzeko mendiak hau tatu (Gorbeia Saldropotik, Altzaniako

Post data: erakutsi nien, nola ez, lehen aldiz 3000 metrora igotzen denak trago bat ordaindu behar diela taldekoideei... eta festa polita izan genuen.

## HEMENDIK AUERRERA ZER

Aurten, abentura errepikatuko dugu. Oraingoan, Ana batu zaigu, eta Liemi ezin-gonez gurekin izan. Amaieran autobus magikoan sartuko gara, 8 plazakoa baita. Kantatuko dugu bidaiari, barre algaraka iritsiko gara Viadós-era, dantzatuko gara Ángel Orús-era, hegan egingo dugu Estós-era, iboietako ur hotzen berotasuna sentituko dugu eta bueltan ekarriko ditugu begiak urdin eta berde.

Amatasunak berriago ekarri zidan berarekin, eta gaur egun ez naiz gai 2 metro zabal dituen Faja de la Flores-etik pasatzeko ere, Ordesan. 17 urte nituen Pirinioak ezagutu nituenean; gaur, 47 ditut: zimur eta beldur gehiago, muskulu eta indar gutxiago. Baina mendiak abenturak eta erronkak gauzatzen uzten dit oraindik. Hortxe baitago, jendez beteago, izotzez hustuago. Irauten du eta irauango du, baita ni ez nagoenean ere. Gure semeak 17 urte ditu eta haren ondorengoek izaten jarraituko dutela espero dut.

Esan dizuet lehenago, abentura-istorioa da hau. Ez zen urrutiko lurretan gertatu;

protagonistak ez ziren exotikoak; eta altxor mirestua edonon dugun mendia bera zen; hala eta guztiz ere, bilaketa, ikasketa eta erronka dira gure istorioaren oinarria, edozein abenturaren oinarria.

## IBILBIDEAK XEHETASUN HANDIAGOZ

### Bisaurini itzulia

**1. eguna: Oza-Lizara. 22,8 km**

Ozako kanpinetik aurrera, autoa uzteko tokia dago, erreikaren ondian. GR Ilren marra zurri gorriak ala Aragón ibaiak; biak ala biak jarraitu daitezke, bidelagun izango baititugu. Aguas Tuertasera iritsi arte.

Castillo de Acher hegoaldera utzita, bidela leuna, zabal eta eroso da. Puente de los Chitanosetik gora, malda handitu egiten da baina zigri-zaga, zailtasunik gabe igo daiteke. Eta, parean, Aguas Tuertas zabal-tzen zaigu. Ibaiaren goi ibilgurantz goaz. Konturatu gabe, Espainia eta Frantzia arteko mugari paralelo jarraitu gatzazio.

GR IIko marrek, arazorik gabe eraman-go gaituzte Los Samios bailara ezkutura, Estanés iboitik pasata. Ez genuen han sarriorik ikusi. Baina bailararen amaieran, Bemeraiko portutik Piana Mistresara pasa ginenean, sarrio pila bat ikusi genuen; gatz takoak miatzkatzen ari ziren, gure bidetaren erdi-erdian.

Oulettes de Gaubeko aterpetxean, jende andana zabilen, aurrera eta atzera: egunaren nekaz arintzeko, txupito bat eman ziguten, afa! aurretik

7 tontor, Aralariko hainbat...), agendak lotu (ministrak koordinatu), tontorrek zapaldu (baina nabarmendu barik!) eta Pirinioetan beste zeharkaldi txo bat egiteko prest. Hiru egunekoak -hiru!, oraingoan, eta erronka berria, zera: tontor bat sartuko genuen, 3000 metrokoal

300 metroko altueran bizi gara. 3000 metrora salto handia dago. Saltatu behar genituen mendiak eta beldurrak, beldurrak eta ziurtasun-ezak, ziurtasun-ezak eta logistika-kontuak. Eta beste behin, gure buruei erakutsi genien gai gineka, inguru arrotz eta ezezaguna lagun bilakatu eta eroso sentitzera iritsi gintezkeela. Eroso, txiki eta handiera berean. Amaieran 8 plaza-zako autobus magikoak gure planeta, gure tokia eta gure burua pixka bat gehiago ezagutzera eraman gintuen.



## PIRINIOAK

Plana Mistresatik Lizararako bidea nabarmenada. Aldapa beheara, ez oso gogorra. **2. eguna: Lizara-Oza. 19,4 km**

Aterpetxetik ekialdera ateratzen den bidea hartu, Foraton-go lepora (2032 m) zigi-zaga igo eta GR 11.1a lagun izango dugu, Gabarditoraino. Dios te Salve borda ondotik pasa eta bideak jaisten jarraitzen du, Aguerri sakaneko hego partetik. Bazkatzen ari ziren behien zintzarrien hotsa lagun izan genuen bide osoan zehar.

Altura galduta ahala, larreek protagonismoa galtzen dute eta harriak zapalduz, lasai-lasai, Gabarditoko aterpetxera iritsi ginen. Mokatuboa hartu genuen aterpetxearen kanpoko aldean.

Santa Anako zubian (250 m), ibaiarekin topo egin genuenean, bainu ederra hartu genuen. Handik gutxira sai baten luma aurkitu genuela gogoratzen dut. Liemik haren haurrei oparitu zien.

Errepidea zeharkatu eta gora eta beheara doan erromatar bidetik aurrera egiten du bideak, ondoren, berriz zeharkatuko du errepidea. Abandonatuta dagoen San Juan de Dios kanpalekutik pasa araziko gaitu, aurrerago Sil-eko zubiak igaroko gara eta, azkenean, Ozako kanpinetik autoa utzi genuen tokian amaituko dugu.

Santa Anako zubitik Ozara arteko bides luzea egin zitzaigun, egia esan. Gora eta beheara amaituzinak ditu eta errepidea hurbil.

### Vignemale-ri itzulita

**1. eguna: Bujaruelo-Oulettes de Gaube. 17 km**

Bujarueloko (1338 m) aterpetxearen aurrean dagoen zubi erromatarra zeharkatu eta ezkerreara doan bidetik, GR 11 hartuko dugu. Ordiso eta Cerbillonar bordak igaro behar dira, beheerago zeharkatu dugun Araren beste muturrera iristeko. Ara bera dugu bidaide.

Eskuinera, Vignemaleko harrizarra dugu. Hegoaldetik iparrera goaz, eta aurrean azaltzen joan dira Grand Arratille, Né, Tuque Blanche eta Alphonse Meillon tontorrak. Irtenbiderik gabeko kale zabal berde-urdin zoragarrian gaudela ematen du. Bides, alabaina, argia da, iparekialdera jo behar dugu, harrizarrak badu zirrikiturik. Agur, Ara.

Des Mulets-eko leporaino (2591 m) aldapa majoa dago. Harria eta maldia. Eta lepoaren beste aldera, berriz, oparia, Gaubeko zirkua. Eskuinera, Vignemalaren (3298 m) iparreko horma; aurrean, Petit Vignemale (3032 m) handia; eta ezkerretara, Oulettes de Gaube aterpetxea (2151 m), Santa Klara uharte ilimiño bat iruditu zitzaigun.

**2. eguna: Oulettes de Gaube-Gavarnie. 22 km**

Aterpetxearen ezkerretara, bide harritsuak gora egin behar da -bai gora!- Hourquette



Oulettes de Gauben gertatu zen, 2021eko abuztuaren amaieran, saldemagiko batean





Slow mountain praktikatzen dugu, aurrerantzean dugunarekin iluratu ahal izateko

d'Ossue leporaino (2734 m). Petit Vignemale (3032 m) igotzeko gogoa eta indarra geratzen zitzaigun, ordea.

Lepotik Baysellance-rako (2651 m) jaitsiera erraza da. Pixka bat maldatsuagoa, arrokatsuagoa eta estuagoa da, ordea, Groutes Bellevuetik behera, baina, ederra, zinez.

Oulettes d'Ossuen berriz ere baretu egiten da bidea eta Barrage d'Ossuen hankak busti genituen. Lourdeseko bordatik, hegal-hegaletik GR 10 jarraitzen ari gara eta jarraitzen jarraituko dugu, Gavarnieraino.

Le Gypaète aterpetxean ostatu hartu genuen; mundiala.

### 3. eguna: Gavarnie-Bujaruelo. 12 km

Herria zeharkatu behar da, mendiarren magala harrapatzeko. Poliki-poliki gora egin ahala, koadroaren puntu beroa den

ur-jauzia argi eta garbi ikusten dugu. Zirkuaren mendebaldeko magaletik goaz Plateau de Bellevuerantz, etengabeko igoaldian.

Peyre Nère eta Saint Bertrand eskuin-ekzer ditugula, Soldaduen borda aldera hartu behar da. Bidea nabarmena da. Hegoaldera, Espainia eta Frantzia arteko muga dago eta Intzak isiltasuna hautsi zuen haren semeak Taillon igo zueneko kontakuzeko.

Port de Bucharo-Bujaruelo-ra iritsi aurrerako aldapa asfaltatuta dagoen bidexkaraino gogorra egin zitzaigun. Aitzitik, Bujaruelo aterpetxera malda handirik gabeko jaitsiera inuditu zitzaigun. Bidea oso zapal-duta, agerikoa eta pentsatu gabe egiten den horietakoa. Agian horregatik, isildu gabe jaitsi ginen.



Basoaren itzalelata, bagoaz-goraria behera- Gabard totik Ozarantz

#### KARTOGRAFIA:

Ansó-Echo, Isaba-Lescún 1:40000. Ed. Alpina.

Carte de Randonnées, hiking map, 1:50000. Gavarnie-Ordesa, Balaitous, Vignemale, Mont Perdu, Park National d'Ordesa. Ed. Rando Editions. Données, IGN.